

Euskal Hezkuntza Sistemak izan behar du:

ONARRIZKO PRINTZIBOIAK

1.- Unibertsala.

Euskal herritarorori hezkuntza eskubidea bermatuko diona. Bazterketarik gabea arrazoi ekonomiko, politiko edo sozialengatik, nahiz jatorriari edo sexuari lotutako edozein ezaugarriengatik.

2.- Euskara eta euskal kultura ardatz dituen.

Benetako murgiltze eredia gauzatuko duena, oraingo Hizkuntza-ereduek ezartzen dituzten desberdintasunak gaindituta. Ikasle guztiei bermatuko diona euskaraz osotasunean bizi ahal izateko maila, duten abiapuntua dutela, eta bizi diren errealitate soziolinguistikoa bizi direla.

3.- Euskal Curriculumentik eraikia.

Oso-osorik, bertatik bertara eraikitako curriculumean oinarrituko dena. Konpetentzien garapenerako ikasgai zerrenda, metodologia eta kosmobisio propioarekin. Ebaluazio sistema hezitzailea eta hobekuntzara bideratua.

4.- Euskal Herria bere osotasunean landuko duena.

Dagokion lurralde bakoitzeko errealitateak kontuan izanik, osotasun batetik abiatuko dena, errealitate guztien aniztasunari zentzu komuna emango diona. Euskal Herriaren lurralde osoak eragingo diona, eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemetako ikastetxeen arteko lankidetzaz-hitzarmenak bultzatuko dituen.

HEZKUNTZAK LANDU BEHARREKO BALOREAK

5.- Hezkidetzan oinarritua.

Pertsonen arteko berdintasuna bermatu eta sustatuko duena. Ikasleei tresnak eskainiko dizkiena beren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunetik eta aukera-aniztasunetik, genero-baldintzatzailek gabe, besteak beste kultura, erlijio, gizarte-klase, egoera funtzional eta sexu orientazio bakoitzaren esparruetan.

6.- Laikotasunean heziko duena.

Sinesmen askatasuna bermatzeko, erlijioak, fede gisa, curriculumentik kanpora utziko dituen, ez bada jakintzaren begirada zientifiko hutsez ekiteko.

7.- Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua.

Ikasleak, euren ikas ibilbidea amaitutakoan, ezaugarri hauek izatera bideratuko dituen: Euskaldun konprometitu eta eleanitzak; beren buruekiko konfiantzadunak; lankidetzan ikaskideak; erabaki hartzaile kritikoak; ekintzaile gogoetsuak; jokabide etikodunak; sortzaileak; ikusmira zientifikodunak; orekaren zaintzaileak.

8.- Inklusiboa.

Euskal Herria etortzen diren jatorrizko izaera errespetatuta, euskal herritar izateko baliabideak eskainiko dizkiena, eta, aldi berean, euren ekarpenak aberastasun gisa ulertuko dituen. Jatorri askotariko ikasleak modu orekatuan eskolaratuko dituen, euren beharrak erdigunean jarrita.

HEZKUNTZAREN ANTOLAKETAZ

9.- Gobernantza demokratikotik antolatua.

Hezkuntza komunitateko kide diren guztien erantzukizun partekatutik bideratua. Ikasle, guraso nahiz langileen hezkuntza prozesuari dagozkion erabaki komunetan eta erantzukizunen banaketan oinarritua.

10.- Ikastetxeei autonomia aitortuko diona.

Tokian tokiko hezkuntza komunitate bakoitzak bere proiektua eraginkortasunez garatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzari lanean ari den errealitatean eragiteko baliabide materialak ziurtatuko dizkiona, eta gardentasunez eta autonomiaz giza baliabideak zein materialak kudeatzeko eskumena aitortuko diona.

11.- Publiko-herritar eredutik sortua.

Euskal gizartearen izaera parte-hartzaile eta kolektiboan oinarritua, publikotasun eredu berria eraikiko duena, titulartasunari baino, publiko-herritar harremanari kasu egingo diona. Irabazi asmorik gabeko herri proiektuak, gizarte ekonomian kokatuak, hezkuntzaren arloan ongizate-estatuaren oinarritzko helburuekin bat egiten dutenak, sistema publikoaren partetzat hartuko dituen.